

Eskontzen estatistika

Emaitzen analisia

Lanketa:

Eustat

Euskal Estatistika Erakundea

Instituto Vasco de Estadística (Eustat)

Argitaraldia:

VII-2007

Argitalpena:

Eustat

Euskal Estatistika Erakundea

Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Internet: www.eustat.es

© **Euskal AEko Administrazioa**

Administración de la C.A. de Euskadi

2005EKO EZKONTZEN ESTATISTIKA

2005. urtean, aurreko urtean baino 10.201,584 ezkontza gehiago izan zen Euskal Autonomia Erkidegoan.

Ezkontzen, jaiotzen eta heriotzen estatistikek biztanleriaren mugimendu naturala osatzen dute. 1861. urtean egin zen heriotzen gaineko lehenengo estatistika; eta harrezkero aldi honetan izan diren aldaketa demografikoak eta horien bilakaera ezagutu ditzakegu. Biztanleriaren mugimendu naturalak, migrazio-mugimenduekin batera, biztanleriaren gorabeherak zehazten ditu.

2005. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoan sexu bereko egoiliarren arteko 10.201 ezkontza izan ziren. Kopuru hori aurreko urteetakoaren antzekoa da; hain zuzen, 2004. urtean baino 584 ezkontza gutxiago egon zen. EAEn mila biztanle bakoitzeko 4,5 ezkontza izan ziren, hau da, Europar Batasunean eta Espainian baino pixka bat gutxiago (4,8 bi kasu hauetan).

1. TAULA EZKONTZEN ESTATISTIKA		2005	
Lehen ezkontzaren batez besteko adina (urteak)			
EUROPAR BATASUNEN EZKONTZAK (1.000 biz.)		Gizonak	Emakumeak
EUR25	4,8	30,0	27,7
Bélgica	4,1	29,3	27,1
República Checa	5,1	28,4	25,6
Dinamarca	6,7	32,3	30,1
Alemania	4,7	30,6	28,1
Estonia	4,6	28,1	25,5
Grecia	5,5	31,0	27,3
Espainia	4,8	30,2	28,3
Frantzia	4,5	30,4	28,2
Irlanda	5,0	:	:
Italia	4,3	30,4	27,4
Zipre	7,8	28,9	27,3
Letonia	5,5	26,8	24,8
Lituania	5,8	26,6	24,4
Luxemburg	4,4	30,2	27,9
Hungaria	4,4	28,6	25,8
Malta	5,9	29,0	26,5
Herbehereak	4,5	30,8	28,4
Austria	4,8	29,9	27,7
Polonia	5,4	27,0	24,7
Portugal	4,6	28,0	26,1
Eslovenia	2,9	30,1	27,5
Eslovakia	4,9	27,7	25,0
Finlandia	5,6	30,4	28,8
Suedia	4,9	32,9	30,5
Erresuma Batua	5,2	29,3	27,2
EAE	4,5	32,4	30,4

(*) 2005. urtea baino lehenagoko datua


(:) Ez dugu datu hau

Iturria: EUROSTAT eta EUSTAT

2005. urtean 10.201 bikote ezkondu ziren eta horietako 9.575 Euskal Autonomia Erkidegoan bizi izan zen (1.280 Araban, 5.000 Bizkaian eta 3.295 Gipuzkoan); beste 626 bikoteak, aldiz, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo joan ziren bizitzera. Bikoteak ezkondu ziren tokien arabera, 9.386 ezkontza Erkidegoan bertan egin ziren eta 815 Erkidegotik kanpo.

Ezkondu zirenen jatorri geografikoari dagokionez, ezkontzen %77,7 Erkidegoko udalerrri bereko bizilagunen artean egin ziren, eta %7,2 udalerrri mugakideetako bizilagunen artean.


Ezkontzak, ezkontideen egoitzak hurbil dauden kontuan hartuta. (%)




2005eko ezkontzak ospatzeko modua aintzat hartuta, 5.670 ezkontza katolikoak izan ziren, 4.525 ezkontza soilik zibilak izan ziren eta 6 bestelako erlijioetakoak izan ziren. Urteak igaro ahala, ezkontza zibil gero eta gehiago izan da: 1990. urtean ezkontzen %23,3 mota horretakoak izan ziren eta 2004. urtean %44,4.

Lurraldez lurralde, ezkontza zibilen ehunekorik handiena Gipuzkoan eman zen (%47,6), gero Araban (%44,7) eta azkenik Bizkaian (%44,2).

2. TAULA	EZKONTZEN ESTADISTIKA			1990-2005
EZKONTZA ZIBILEN BILAKAERA (%)	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	
1990	21,3	24,1	23,3	
1991	24,1	26,0	25,1	
1992	24,3	24,0	25,7	
1993	24,8	27,9	27,6	
1994	26,7	27,6	26,0	
1995	30,4	28,1	26,4	
1996	31,9	29,1	27,4	
1997	31,5	28,4	29,9	
1998	35,9	30,1	32,4	
1999	33,8	28,6	30,5	
2000	30,3	29,0	31,3	
2001	32,7	32,3	35,0	
2002	35,6	34,9	37,4	
2003	43,1	35,5	40,9	
2004	44,2	41,3	46,0	
2005	44,2	43,4	47,8	

Ezkontza kopuruaren bilakaera, hileka. Oinarria 100 = batezbestekoamedia



Ezkontzeko unea aukeratzekoan estazionalitate nabarmena ematen da: lau ezkontzatatik hiru maiatza eta urria bitartean egin dira, eta horien artean uztaila (1.728), iraila (1.475) eta ekaina (1.332) izan dira nagusienak. Udako hilabeteen artean azpimarratzekoa da abuztuan ezkontza kopuruak behera egin zuela. Abenduan, urtarrilean eta otsailean ezkontza oso gutxi egin ziren baina ezkontza zibilen ehunekoa gehitu egin zen.

Ezkontza-motak, hileka. (%)


Ama izateko adinak gora egin duen neurrian, ezkongabeen ezkontzeko adinak ere hala egin du. 1986tik, senarren batez besteko adina 5 urte igo da, eta emazteena, 5,5.

2005. urtean, ezkondu ziren gizona ezkongabeen batez besteko adina 32,4 urte zen, eta emakumezkoena, berriz, 30,4. Adin horiek Europar Batasunekoak gainditu zituzten, bien arteko aldea bi urte ingurukoa izanik; hain zuzen, Europar Batasunean, ezkondu ziren gizona ezkongabeen batez besteko adina 30 urte zen eta emakumezkoena 27,7.


Ezkontide ezkongabeen batez besteko adina



Adin-tarteei dagokienez, eta gizonen kasuan, 30-34 urteko taldeak 25-29 urtekoa (1997. urtean ugariena) gainditzeko oraindik. 35 urtetik gorako ezkonberrien ehunekoak gora egiten jarraitzen du eta, era berean, 25 urtetik beherakoak gutxitzen jarraitzen du.


Emakumeen kasuan, 30-34 urteko taldea pixkanaka gehitzen doa eta 25-29 urtekoa gutxitzen. Hala ere, hamarkada horretan 25-29 urteko taldea da nagusi oraindik baina 1995. urtetik aurrera pixkanaka gutxitzen joan da. Gizonen kasuan bezala, emakumezkoen artean ere 35 urtetik gorako emazte gehiago dago eta ia desagertu egin da 20 urte baino gutxiagorekin ezkontzen diren emakumeen taldea.

Ezkontzen banaketa ezkontideen adinaren arabera. (%)




Ezkontideen adinaren bilakaera. (%)


GIZONAK



EMAKUMEAK



Ezkondu baino lehenagoko egoera zibila aintzat hartuta, ezkontzen %88,8 ezkongabeen artekoa izan zen. Ezkongabe zegoen emakumeen ehunekoa (%93,3) gizonenenaren (%93) antzekoa izan zen. Alargunak, ordea, ez dira ezkonberri guztien %1era heltzen. Alargunen artean berriz ezkondu ziren gizonak ia emakumeak baino bi aldiz gehiago izan ziren, nahiz eta kopuru horiek oso txikiak izan. Dibortziatuta zeuden ezkonberrien kopurua ere ez zen oso handia baina 1990. urtetik aurrera kopuru hori gehitzen joan da. Dibortziatuen artean, 2005. urtean ezkondu ziren gizonen %31,9 eta emakumeen %28,8 dibortzio-epaia lortu eta urtebete igaro baino lehen ezkondu ziren. Azken hauetako gehienek ezkontza zibila aukeratu zuten.

EAEtik kanpo bizitzera doan senar-emazte kopurua, bizileku berriaren arabera


Ezkondutuen ostean Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora bizitzera joan ziren 626 bikoteen bizilekuak hauexek izan ziren: Kantabria eta Madril, Gaztela eta Leon eta Nafarroa. EAEko hiru lurralde historikoetan eginiko ezkontzetan ezberdintasunak daude bizitzeko lekua aukeratzean: Arabako bikoteak batez ere Errioxara eta Gaztela eta Leonera joan ziren; Bizkaikoak Kantabriara eta Madrilerara, eta Gipuzkoakoak lehenbizi atzerriko herrialdeetara eta gero Nafarroara.

Bestalde, sexu bereko 74 ezkontza egin dira urte honetan; bikote horietako 10 Arabara joan ziren bizitzera, 35 Bizkaira, 26 Gipuzkoara eta Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora. Izan ere, 56 ezkontzatan bi ezkontideak gizonezkoak izan ziren eta 18tan emakumezkoak.

Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del



www.eustat.es